Tiba.

Segurtasuna eta erosotasuna.

TIBA pertsona helduei etxean eguneroko jarduerak egitea erraztuko dien produktuaren diseinua da. Produktu hau, kozinatzerako garaian, moztu beharreko janaria era erraz eta eroso batean mozteko diseinatu da.

Produktu honen helburua, pertsona helduei modu autonomoan moldatzen laguntzea, egunerokotasuna erraztea, ondo sentiarazten dieten jarduerak berreskuratzea eta autoestimua hobetzea da. Bere erabileragatik, publiko honez gain, ikusmen arazoak dituzten pertsonen, edota eskuetako motrizitate arazoak dituzten pertsonen eguneroko bizitza hobetzen lagun dezakeen produktu bat da.



Hasteko, taularen gainean zerbait moztu nahi denean, produktua honen atzeko aldean jartzea besterik ez da egin behar, bentosak sukaldeko gainaldera itsatsiz.

Jarraian, produktua ongi finkatuta, labana sartu behar da. Horretarako, zuzenean sartu beharrean (prezisio arazoak ekidituz), eskuineko aldetik gerturatuz sar daiteke.

Amaitzeko, labana sartuta, jakia moztea besterik ez da gelditzen, eskuinetik ezkerrera labana mugitzen joanaz eta gaineko piza errailean zehar lerratuz.



Dimentsio txikiko produktu honen bi pieza nagusiak altzairu herdoilgaitzezkoak dira eta honek, erresistentzia eta iraupena bermatzeaz gain, garbigailuan arazorik gabe sartzea ahalbidetzen du.